BERAKO UDALA
herriko etxeko plaza, 1
31780 BERA
NAFARROA
tel. 948 630 005
IFK: P 31 25000D
www.bera.eus
bera@bera.eus

# ALKATETZAREN 1/2022 INSTRUKZIOA

## UDALEKO LANGILEEN OPORRAK, LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko araudia onesten duen 11/2009 Foru Dekretuaren 3. artikuluak ezartzen du oporrak, lizentziak eta baimenak hamar egun natural lehenago eskatu behar dituela interesdunak, salbu eta arrazoi justifikatua egon. Zerbitzuaren beharren arabera emango dira beti.

Hala ere, Udaleko plantilla osatzen duten langileen artean ohikoa da opor-egunen eskaerak aurkezten dituztenean adierazitako aurrerapen epea ez errespetatzea.

Horregatik, komenigarritzat jotzen da jarraibide hau ematea oporrak, lizentziak eta baimenak emateko prozedura Berako Udalaren plantillak duen tamainara egokitzeko, Udalak ematen dituen zerbitzuen antolaketa bermatzea helburu.

Instrukzio hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21 h) artikulua aplikatuz ematen dut, langile guztien buruzagitza betez.

Ondorioz, Udaleko alkate naizen aldetik, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

1. Oporrak, lizentziak eta baimenak **gutxienez egutegiko 7 egun lehenago** eskatu beharko ditu interesdunak, arrazoi

# INSTRUCCIÓN DE ALCALDÍA 1/2022

## VACACIONES, LICENCIAS Y PERMISOS PERSONAL AYUNTAMIENTO

El Decreto Foral 11/2009, por el que se aprueba el reglamento de vacaciones, licencias y permisos del personal funcionario de las administraciones públicas de Navarra, en su artículo 3, establece que las vacaciones, licencias y permisos deben solicitarse por la persona interesada con diez días naturales de antelación, salvo causa justificada. Su concesión estará condicionada siempre a las necesidades del servicio.

Sin embargo, viene a ser práctica habitual entre las personas que integran la plantilla del Ayuntamiento, a la hora de formalizar sus solicitudes de días de vacaciones, no respetar el plazo de antelación indicado.

Es por ello que se considera conveniente dictar esta instrucción para adaptar el procedimiento de concesión de vacaciones, licencias y permisos al tamaño que tiene la plantilla del Ayuntamiento de Bera, asegurando la necesaria organización de los servicios que por el mismo se prestan.

La presente instrucción se dicta en aplicación del artículo 21 h) de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases del Régimen Local, en el ejercicio de la jefatura superior de todo el personal.

En su virtud, como alcalde del Ayuntamiento,

**DISPONGO:**

1.- Las vacaciones, licencias y permisos deben solicitarse por la persona interesada, salvo causa justificada, con un

02/03/2022 14:42:43
Aitor Elexpuru Egaña-Berako Alkatea
(Originala digitalki sinatua / Firmado digitalmente)

justifikatua salbu.

2. Oporren eta norberaren gauzetarako ordaindutako baimenen kasuan (ohikoenak baitira), langile bakoitzarentzat prestatutako inprimakia bete eta sinatu beharko da, eta alkatearen sinadurak baimena ematea suposatuko du. Eskaera egiten denetik 7 egun natural igarotzen badira alkateak agiria sinatu gabe, eskaera administrazio-isiltasunez baietsi dela ulertu ahal izango da. Ematea zerbitzuaren beharren araberakoa izango da beti.

3. Gainontzeko kontuetarako, 11/2009 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio.

4. Dokumentu honek dagozkion ondorioak izan ditzan, udal langile guztiei kopia bana emango zaie, eta iragarki taulan eta gardentasun atarian argitaratuko da.

**mínimo de 7 días naturales de antelación**.

2.- En el caso de las vacaciones y los permisos retribuidos por asuntos particulares (que son los más habituales), se deberá rellenar y firmar el impreso confeccionado al efecto para cada persona trabajadora, y la firma del alcalde supondrá su concesión. Si transcurrieran 7 días naturales desde la solicitud sin haberse firmado por el alcalde la concesión, se podrá entender estimada la solicitud por silencio administrativo. La concesión estará condicionada siempre a las necesidades del servicio.

3.- Para el resto de las cuestiones se estará a lo dispuesto por el Decreto Foral 11/2009.

4.- Para que este documento surta los efectos oportunos, se entregará copia a todo el personal municipal y se publicará en el Tablón de Anuncios y en el Portal de Transparencia.

Beran, 2022ko martxoaren 2an/ Bera, a 2 de marzo de 2022.

SINADURA DIGITALA/ FIRMA DIGITAL.
ALKATEA/ EL ALCALDE,
Aitor Elexpuru Egaña.